


JARDUERA PEDAGOGIKOAK 2010-2011



Igartubeiti Baserri Museoak, euskal baserriaren historia, bilakaera eta bertan bizi izan diren biztanleen eguneroko bizimodua erakusten du.



Informazioa eta erreserbak:
Tlf. 943 72 29 78
(asteazkenetik igandera, 10:00-14:00)
igartubeiti@gipuzkoa.net

IBILBIDE GIDATUAK

Iraupena: 1:30

1/KATTALINEN BASERRIA

NORI ZUZENDUA: Lehen Hezkuntza.

EDUKIA: Ikasleei euskal baserria, bere erabilpena, bilakaerari eta biztanleen bizimoduari buruzko ezagupenak modu ludikoan ematea.

ERABILERA ARLO NAGUSIAK: Inguruaren ezaguera, Euskal Herriaren historia.

METODOLOGIA:

- Bisita gidatua Interpretazio Zentruan, ikusentzunezko, modulo interaktibo eta proiektzioak:
 - Kattalinen ongietorria.
 - Euskal baserri bilakaera.
 - Tolare baserria.
 - Igartubeitiko 1630eko biztanleak.

Baserriko lanak.

- Bisita gidatua Igartubeiti Baserrian:
 - Baserria barrutik.
 - Baserriko bizimodua.



3/TOLARE BASERRIA

Urriko lehen eta bigarren astean.

NORI ZUZENDUA: DBH, Batxilergo, Lanbide heziketa eta helduen hezkuntza.

EDUKIA: Igartubeiti Baserriko dolarea zuzenean martxan ikusi, sagardoa egiteko orain dela 500 urte erabiltzen zen teknika ezagutzuz.

ERABILERA ARLO NAGUSIAK: Egurrezko arkitektura, sagardogintza, palanka teknologia, indar motak.

METODOLOGIA:

- Bisita gidatua Interpretazio gunean zehar:
 - Tolare baserria 3 Dtan.
 - Igartubeitiko dolarea zuzenean martxan ikusi, azalpenekin.



2/BASERRIETAKO BIZIMODUA

NORI ZUZENDUA: DBH eta Batxilergoa.

EDUKIA: Ikasleei baserriarrak nola bizi ziren eta lana nola egiten zuten, nolako harremanak zituzten beraien artean, zertan sinesten zuten, zer ekoizten zuten, zer jaten zuten eta nola dibertitzen ziren ezagutzera ematea.

ERABILERA ARLO NAGUSIAK: Landa eremua eta nekazaritza paisaiak, ingurune naturaletako aldaketak, artoaren sarrera, biodibertsitatea, historia, ondarea.

METODOLOGIA:

- Bisita gidatua Interpretazio Zentruan, ikusentzunezko, modulo interaktibo eta proiektzioak:
 - Euskal baserri bilakaera.
 - Tolare baserria.
 - Igartubeitiko 1630eko biztanleak.
 - Baserriko lanak.

- Bisita gidatua Igartubeiti Baserrian:
 - Baserria barrutik.
 - Baserriko bizimodua.



4/BARATZA

NORI ZUZENDUA: talde guztiei.

EDUKIA: Baratzak baserriko dietan duen garrantziaz ohartzea, baratz ekologiko-biodinamiko baten funtzionamendua, sendabelarrak.

ERABILERA ARLO NAGUSIAK: Landa eremua eta nekazaritza paisaiak, ingurune naturaletako aldaketak, artoa sartzea, biodibertsitatea.

METODOLOGIA:

- Igartubeiti baserrian:
 - Sukaldera eta ikuilura bisita.
- Kanpoko baratzan dietaren bilakaera landu.



ANIMAZIO TAILERRAK

Iraupena: 1:30

1/BASERRIA ETA BERE INGURUNEA

NORI ZUZENDUA: Guztiei, talde zein norbanakoari.

EDUKIA: Umeek baserria eta bere ingurunea erreprezentatzen duen maketa interaktiboan pieza desberdinak (artaldeak, sagastiak, hariztiak, pinudiak, txondorrek, karobiak, etxolak, lantegiak, baserriak, kanpandorreak...) kokatuko dituzte zenbait dinamika-jokoan bitartez:

galdera-erantzun, piktionari, frogak eta abar. Honela, modu bisual batean, paisaiak, Erdi Arotik gaur egunerarte bizi izan duen eraldaketaz jabetuko dira.

ERABILERA ARLO NAGUSIAK: Inguruaren ezaguera, Euskal Herriaren historia, landa eremua eta nekazaritza paisaiak, ingurune naturaletako aldaketak.

METODOLOGIA: Taldeka edo banaka partehartzaileek baserriaren biziraupena lortzen saiatuko dira.



3/HERRI KIROLAK

NORI ZUZENDUA: 6-12 urteko haurrentzat.

EDUKIA: Herri kirolen eta baserriko lanen arteko harremana. Erabilera arlo nagusiak: Animazioa, herri kultura, kirola.

ERABILERA ARLO NAGUSIAK: Animazioa, herri kultura, kirola.

MATERIAIA: Herri kiroltako tresnak.

METODOLOGIA: Haurrek baserriko nagusiarri lanak egiten lagunduko diote: esnea ekarri, artoa errotara eraman, aletutako artaburuak bildu, gurdinari buelta eman...



2/BARATZA INTERGENERAZIONALA

NORI ZUZENDUA: Helduentzat eta 8-12 urteko haurrentzat.

Baratzako lanak ezagutu izan dituzten heldu eta hauren arteko topaketa, baratza bera baliabide gisa erabiliz. Jarduera, objektuen, irudien eta helduen bizipenen bidez dinamizatu egongo da.

EDUKIA: Baratzaren lanketa, historia, belaualdien arteko topaketa.

ERABILERA ARLO NAGUSIAK: Belaualdien arteko harremana sustatzea, historia, baserriko bizimodua.

4/BASERRIKO ANIMALIAK

NORI ZUZENDUA: 8-12 urteko haurrentzat.

EDUKIA: Baserriko animaliak, ematen dituzten lanak eta onurak.

ERABILERA ARLO NAGUSIAK: Animalia familiak, elikagaiak.

METODOLOGIA:

- Igartubeiti baserriko ikuiluan bisita.
- Taldeka animalia eta erlazioan dutako produktuen inguruan mimika, piktionari, galdera-erantzunekin animaliak panelean ezartzen joan.



5/GINKANA. IGARTUBEITIKO SAGUXARRA AURKITZEN

NORI ZUZENDUA: Talde eta familiei. Bizilagun xelebrea bizi da Igartubeitiko erraetan. Gure saguxarra aurkitu dezazun frogara eta joku desberdinen laguntza izango duzue!

6/ARTISAUEN TAILERRAK

NORI ZUZENDUA: Familiei.

Hilabetero, azken larunbatean artisauren tailerrak izango ditugu. Umeek saskiak, abarkak, ezitia eta kandelak egiteko aukera izango dute artisauren laguntzarekin.



	JARDUERA PEDAGOGIKOAK	LEHEN HEZKUNTZA	BIGARREN HEZKUNTZA	BATXILERGOA	HELDUEN HEZKUNTZA	FAMILIAK
IBILBIDE GIDATUAK	1/ KATTALINEN BASERRIA	●				
	2/ BASERRIETAKO BIZIMODUA		●	●		
	3/ TOLARE BASERRIA Urrian	●	●	●	●	
	4/ BARATZA	●	●	●	●	●
	5/ ERAIKUNTZA BIOKLIMATIKOA	●	●	●	●	
ANIMAZIO TAILERRAK	1/ BASERRIA ETA BERE INGURUNEA	●	●	●	●	●
	2/ BARATZA INTERGENERAZIONALA	●			●	
	3/ HERRI KIROLAK	●				
	4/ BASERRIKO ANIMALIAK	●				
	5/ GINKANA. IGARTUBEITIKO SAGUXARRA AURKITZEN					●
	6/ ARTISAUEN TAILERRAK					●

BESTE IBILBIDE BATZUK

1/NEKAZAL ETA HIRITAR BIZIMODUA BONU BATERATUA

Igartubeiti Baserri Museo eta Zumalakarregi Museoko ibilbide honek XVI. mendetik XIX. menderainoko nekazal eta hiritar eguneroko bizimodua ezagutzeko aukera eskaintzen du.

2/SAGARDOAREN KULTURA BI MUSEO, KULTURA BAKAR BAT

Sagardoetxea, sagardoaren museoa, Astigarraga. Igartubeiti Baserri Museo, Ezkio-Itsaso.

Gure iraganaren erroak ikasteko eta gozatzeko bi leku.

3/AIKUR ERLE MUSEOA -IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA

Erleen eta baserriaren munduan murgiltzeko aukera.

Iristeko Mapa



IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA

Ezkio bidea, 1.Km

20709 Ezkio-Itsaso | Tel: 943 72 29 78

igartubeiti@gipuzkoa.net

www.igartubeitibaserria.net